



Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria
Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

[DESKARGATU PDF](#)

Beharrezko baimenak

Honako hauek dira abeltzaintza-ustiategi bat instalatzeko eta horren funtzionamendurako beharrezko baimenak:

Jarduera-lizentzia

Abeltzaintza Ustiategien Erregistro Orokorra (REGA)

Ingurumen Baimen Integratua

Abeltzaintza Ustiategien Erregistro Orokorra (REGA)

Animalien Osasunari buruzko

8/2003 Legea

ren arabera, animalia-ustiategi guztiek egon behar dute dauden autonomia-erkidegoan erregistratuta.

479/2004 Errege Dekretu

ak arautzen du Abeltzaintza Ustiategien Erregistroa. Bada, horrek ezartzen du jarduera hasi aurretik, titularrak honako datu hauen berri eman behar diola agintaritzza eskudunari:

Titularraren datuak

Ustiategi-mota (ekoizpena, ugaltzekoa...)

Animalia-espezia

Ustiategiaren kokapenari buruzko datuak

Ustiategi bakoitzari ustiapen-kode bat ematen zaio, eta honako hau da bere egitura: ES + probintziari dagozkion bi zenbaki + ustiategia zehazki identifikatzen duten zazpi zenbaki.

Erreferentziako legeria

Legeriaren datu basea

- ELIKA

Jarduera Lizentzia

Euskadiaren Ingurumenaren Babeseko

3/1998 Lege

ko II eranskinen arabera,

7/2012 Leg

eko 83 artikulua aldatuta, Jarduera-Lizentzia beharrezko udal-lizentzia da:

20 esne-behi baino gehiagoko (20 UGMs-etako) edo 286 ardiko edo 222 ahuntzeko ustiapentzako, lurzoru ez urbanizagarrian edo hiri-lur industrialean badaude.

4 esne-behi baino gehiagoko (4 UGMs-ekin) edo 57 ardiko edo 44 ahuntzeko ustiapentzako, bizitegi-hiri-lurrean badaude.

Hala instalatzen diren ustiategietarako nola jada zeudenetarako.

Kopuru horiek baino animalia gutxiago dituzten ustiategiek, jardueraren aurreko komunikazioa egin behar dute, 7/2012 Legeko 83 artikuluen arabera.

JLa lortzeko betekizunak

515/2009 Dekretua

k, abeltzaintza-ustiategietako ingurumenari, higienari eta osasunari buruzko arauak ezartzen dituenak, arautzen ditu Euskadin.

Jarduera Lizentzia behar duen animalia zenbk (515/2009 Dekretuko III. Xedapen Gehigarria)

Ingurumen Baimen Integratua

Ingurumen Baimen Integratua nahitaezko lizentzia da

eguneko 200 Tm esne baino gehiago ekoizten dituzten esne-ustiategi intentsiboetarako

Informazio-gida:

Ingurumen Baimen Integratua nekazaritzako elikagaien sektorean

- 2005 - IHOBE

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuei buruzko

16/2002 Legea

k arautzen du, eta horren helburua da ahal den neurrian saihestea abeltzaintza-ustiategien ingurumen-kutsadura, horretarako Eskura dauden Teknika Onenak (AAI) erabilita.

AAIari buruzko orrialdea

- MAGRAMA

Eguneratze data:
2018/05/08

ELIKA

. Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxe: 945 122 171 .

berri@elika.eus

Close

Necessary

Always Enabled

Multilingual WordPress

with WPML